

FUNTSEZKO JARDUERAK

Hauek dira gure funtsezko jarduerak:

Lehenik eta behi, IAren garapena eta mantentzea egingo dugu, hau da, eredu pertsonalizatuak, ahots-irakurketak, emozio analisiak eta ikaskuntza laguntzaileak baliatuko ditugu.

Bigarrenik, hardware diseinua eta fabrikazioa kontuan hartuko ditugu; izan ere, gure produktua, minimalista, diskretua eta material birziklatuekin egina izango da. Gainera, haurrentzat eta helduentzat prestatua izango da.

Jarraitzeko, mugikorrek aplikazioaren garapena oso garrantzitsua izango da guretzat. eguneroko egituraketa, ariketak, errutinak eta ikuspegi bisualak baliatuko ditugu.

Eduki terapeutiko eta pedagogiko espezializatuen diseinua baliatuko dugu eta modu horretan, autismoa, TDAHra, dislexiara, disgrafiara, diskalkuliara eta alexitimiara egokitu ahalko dugu eta neurodibergentzia desberdinetako pertsonak erabili ahal izango dute.

Azkenik, erabiltzaileen laguntza eta jarraipen pertsonalizatua erabiliko dugu eta horrela, hezkuntza-zentroekin eta familien orientazioarekin koordinatuta egon ahalko gara ikasle edo bezero desberdinei laguntzeko.

Gure funtsezko jarduerak hurrengoak bermatuko dute:

Eguneroko eguna antolatzea eta egituratzea

Gogorazarleak, zeregin-zerrendak, urratsez-urratseko jarraibideak, denbora-kudeaketa.

Irakurketa, idazketa eta ulermena erraztea

Testuen eskaneaketa, ahots bidezko irakurketa, laburpen automatikoak eta ariketa pertsonalizatuak.

Matematikaren eta logika numerikoaren laguntza

Gida bisualak, azalpen pausatua, akatsen analisiak.

Autoregulazio emozionala indartzea

Arnasketa-teknikak, mindfulness, emozioak identifikatzeko tresnak.

Komunikazio eta trebetasun sozialak hobetzea

Euskarri bisualak, errutinak, sentsibiltate-sentsoreetan oinarritutako laguntzak.

Ohitura osasungarriak eta autonomia sustatzea

IAren bidezko motibazioa eta jarraipen integratua.